

# Zuraide indarrean Souraïde dynamique

Zuraideko Talde Abertzalea  
5. Zenbakia – 2016eko ekaina



*Gure auzapezak eta bere ekipak, kanpaina denboran, aitzinekoekin gauzak konparatuz, aldaketa borondate argi bat goraki aipatu zuten. Demokrazia gure bidearen bihotzean baita, gure hautua eta sustengua bildu zuten.*

*Bainan zertan gira gaur egun?*

*Gure zinegotzi bakarraren inguruan, (Zuraideko hautesleen 1/4a inguru ordezkatzeko duena), kontseiluen aintzinetik prestatzeko, beti hainbeste zailtasun ditugu, herriko aipagaiak argitasun eskasarekin baitira eta beharko liratekeen dokumentuak ez direlako eskuragarriak.*

*Herriko Kontseiluak ez du urrundik bere papera betetzen... erabakiak grabatzeko ganbara bati soilik mugatzen du kontseilua, beharko litzatekeen aurre konzertaziorik gabe.*

*Hola dute kontseilariak jakin, « Comptoir Agricole Basque »-en protesta gutun baten bidez, Herriko Etxeak traktore bat erosi zuela. 40 000 euro baino gehiagoko erosketa hori, ez zen ez kontseiluan aurkeztua izan, eta oraindik gutiago eztabaidatua.*

*Larriago oraino, kontseilari bat (gu bezala) gaurko eskola publikoaren tokian jarriko den okindegi proiektuaren berri ez ukaiteaz asaldatu zelarik, auzapez jaunak eta bere axuantak batera erantzun zuten « gogoan dugun ideia bat baizik ez da...azken 15 egunetakoa...» (2016ko martxoaren 30eko HK txostena). Aldiz jakin dugu, hilabete bat baino gehiago lehenago, proiektu deialdi zehatz bat luzatua izan zela auzapezaren gandik! Zergatik beraz halako erantzun bat? Zergatik ez da herriko kontseiluan eztabaidatua izan lehenago?*

*Salatzen zintuen eta ginuen praktika horietatik hainbeste urundu girea?*

**Kontseilu on bat auzapez jauna...** gardentasunean funtzionatzen, ezbaidatzen eta erabakitzen duen kontseilua da, martxan jarri dituen lantaldeen proposamen eta ikusmoldeetan oinarrituz. Denek dugu irabaztekoa.

*Irakurketa on!*

## Zergatik ez amets egin?

Frantziako herri gehienak pleni dira Estatuak diru laguntzak apaldu dituela. Nazio mailako diru egoera ikusirik, egoerak berdin segituko du, ez bada okertzen.

Tokiko zergak emendatzea aterabide bakarra ote da?


Edo amestea da, bihar, auzoko herriek kargu batzuk elkarren artean partekatzea?

Adibide batzuk?

- Herriko pizina badu bere gain Zuraidek, ekipamendu garestia izan daiteke gurea bezalako herri batentzat. Ezpeletak eta Ainhoak ez dute holakorik. Zergatik ez proposatu bi herri horietako haurrei, Zuraidekoei egiten zaien ber prezioa, eta ondorioz, menturazko diru galtzeak hiru herrien aurrekonduen artean partekatu?
- Zuraide traktore berri batez hornitu da. Herriko bi langileekin, traktorea zenbat aldiz ibiliko da hilabetean? Ezpeletan edo Ainhoan ere, ibili gabe egoten direnak baditazke.
- Mediki etxe bat xutik jartzea erabaki du Ezpeletako herriak, Maisadour lehengo dendan. Ezpeletako zazpi bat osasungintzako profesionalen interesa adierazi lukete eta ondoko herrietatik beste batzuk informazioaren bila ari dira. Aintzinagotik elkarrekin gogoetatzea ez ote zen egokiago izanen?
- Okindegi bat Zuraiden? « Superette » dendak ogi salmenta segurtatzen du eta Larresoro, Senpere eta Ezpeletako okinek gure herriko etxeetan ogi banaketa egiten dute. Zentzuzkoa ote da, gurea bezalako herri batentzat, halako inbertsio pizu baten egitea, lehengo eskola publikoa okindegi xume bat bilakarazteko?

Etorkizunari begira, auzo herrien arteko elkartasun aukerak ez dira eskas izanen. Halako kooperazio politika bati diogu eman nahi lehentasuna.





● ● ● Elebitasunari buruzko Eskola publikoaren hezkuntza proiektuaren aldaketa, duela hainbat hilabete onetsia izanagatik, ATSEM (ama eskolako languntzailea) postua sortzerakoan erakutsi anbizio eskasak harriturik utzi gaitu. Izan ere, martxoaren 30eko Herriko Kontseiluan jakinarazi da euskara estimatua izanen dela! Berri ona! Inozenteki, iduritzen zitzagun egiazko eskola elebidun baten xedea izanki, euskara ezinbestekoa zela. Oroitaraz dezagun euskararen gainbehera errefusatzen badugu eta bere kurba alderantzikatu nahi badugu, oraindik antolatu behar dugula.

● ● ● Elkarteei zuzendua : herriko eztabaidetan entzunik, elkarteek erabilera anitzeko gela baliatzeko eskaera egiten ahalko dute, urtean finkatuak diren hiru aldietan baino gehiagotan, galdetzea baizik ez da !

● ● ● Berrespena gure kazetarentzat, bere edukia herriko kontseiluan komentatua baita orain. Bere harrera ikusirik, iduritzen zaigu herritarrak eztabaida gehiagoren aldekoak direla, gehiengoko hautetsi batzuek « ttipikeri » baizik ikusten ez dutelarik. Bakoitza bere iritziaz libro da... gu ere!

Berriz goraki diogu gure helburua herriko eztabaidak bultzatzea dela. Eta horrek, tokiko usaiek itzulipurdikatu eta lokartuak diren gaitzikortasun batzuk iratzarri behar baditu, hainbat hobe!

● ● ● Michèle Alliot-Marie-rentzat ezabatuz doa « Ben Aliren eragina ». Berriz ere Errepublikarren alderdiko 64 federazioaren buru izendatu dutenetik, batzuek, Frantziako lehendakartzako hauteskondeen aitzineko eskuineko primarioetan gudukatzen ikusten dute jadanik. Espero dezagun ez zaiola gure eskualdean bere burua aurkezteko ideia berriz bururat etorriko.

● ● ● Departamenduarekin izenpetu den lurralde kontratuak eskola publikoaren egoitza berria parte handi batean finantzatzen du. 2016/01/14an, Herriko Kontseiluan aho batez onetsia izan da. 12garren aipagai bezala aurkeztua zen, 11 aipagai baiziki ez zituen zerrendan. Gehitze horri buruz galdezkatua izan ondotik, ahanzte bat zela erantzun du auzapezak ! Ongi harrapatua izan den xoriburukeria da, jakinez on egiten duen 212.000 euroko diru laguntzaz ari girela.

● ● ● Ongi badakigu herritarrei luzatua zaien informazio aldizkari baten hedatzeko zailtasunak zein diren; are gehiago borondate onez egina delarik. Haatik, herriko etxeak bere esku dituen ahalak ikusirik, iduritzen zaigu aldizkariaren agertzearen periodikotasuna hobe daitekela. Gaur egun duen idukiaz polemikan ari izan gabe, badakigu urtean kazeta bat baino gehiago ekoizteak, bere kalitatea eta interesa indartzen dituela, gutienez tratatuak diren informazioen freskotasunagatik.

## TAFTA, zer da?

**Estatu Batuen eta Europar Batasunaren artean, trukaketa komertzialak eta inbertsioak osoki liberalizatzea helburutzat duen hitzarmen proiektua da.**

Proiektu hunen negoziaketak, 2013az geroz modu hetsian eta isiltasun handienez egiten dira ! Harriagarria, ez ?

Hitzarmen hori, berretsia balitz, estatu europarretako parlamentuak eta herritarrak kontsultatu gabe egina litzateke: demokraziaren ukapena !!!

Itun horrek ondorio ezin txarragoak izanen ditu gure oinarrizko eskubide eta bizi baldintzetan !

- Gelditzen diren aduana eskubideak hautsiz, laborantza arloan besteak beste, amerikar mozkinen sartze masiboa baimenduko da Europako lurretan (OGM, hazteko hormonak, antibiotikoak, klorodun karkasak...). Gure laborantza herrikoia kaltetuko du eta tokiko ekoizpenen edo zirkuitu laburren laguntzea debekatuko du.
- Europako eta Ameriketako arauak multinazionalen interesetara baizik ez « harmonizatuz !!! », gizarte, ekonomia, osagarri, inguramen eta kultur arauak behera eramanez dituzte.
- Justizia internazional paralelo bat plantan emanez, talde handien arteko tratatuak baimenduko ditu. Edozein estatu, lurralde edo herri azkarki kondenarazten ahalko dute, haien lege edo egitateek beren funtzionamendua trabatzen dutela leporatuz.

Multinazionalen interesak gure burujabetasunari nagusituko zaizkie. Gure etorkizunaz guhaurek erabakitzea garrantzitsua iduritzen zaigulako, justizian, zuzentasunean, gizaki eskubideen errespetuan oinarritzen den ekonomia bat sustengatzen dugulako, eta lehiakortasun samindua eta etengabeko irabazien bilatzea salatzen baitugu, milioi bat europar bezala, proiektu horren aurka gira.

Iparraldean, erakundeak eta partikularrak mugitzen dira. Hautetsi batzuek ere ihardesten dute: 20 herri jadanik (Ezpeleta, Uztaritze, Itsasu, Bidarrai...) beren iritzia eman dute. Batzuek herrien sartzeetan « Tafta-tik kanpo » dioten pankartekin komunikatzen dute. Laster Zuraidek?

# Zuraide indarrean

## Souraïde dynamique

Groupe Abertzale de Souraïde

Numéro 5 – Juin 2016

“

*Notre maire et son équipe, alors en campagne pour les municipales, avaient affirmé une volonté de changement très claire par rapport à l'exercice très personnel de leurs prédécesseurs. La démocratie étant au cœur de notre démarche, ils avaient reçu pour cela notre adhésion et nos encouragements. Mais où en sommes-nous actuellement ?*

*Autour de notre seul conseiller (représentant près d'1/4 des électeurs de Souraïde), nous avons toujours autant de mal à préparer les Conseils Municipaux dont les ordres du jour manquent de clarté et pour lesquels les documents nécessaires ne sont pas disponibles. Le Conseil Municipal, loin de jouer son rôle de... Conseil, tend à se réduire à une chambre d'enregistrement de décisions prises sans sa concertation préalable.*

*C'est ainsi que les Conseillers ont appris par une lettre de protestation du Comptoir Agricole Basque que la mairie achetait un tracteur. Or, cet achat de plus de 40.000 euros, n'avait été ni présenté ni encore moins discuté en Conseil.*

*Plus grave encore, questionné par un conseiller qui s'offusquait (comme nous) de ne pas avoir été informé du projet de boulangerie à la place de l'actuelle école publique, monsieur le maire et son adjoint déclarent « ce n'est qu'une idée que l'on envisage... cela date de moins de 15 jours... » (compte-rendu du CM du 30 mars 2016). Or, nous avons découvert qu'un appel à candidature détaillé avait été adressé par monsieur le maire plus d'un mois auparavant ! Pourquoi alors une telle réponse ? Et pourquoi ne pas en avoir débattu avant, en Conseil Municipal ?*

*Nous sommes-nous vraiment éloignés des pratiques que vous et nous dénonçons ?*

**Un bon Conseil monsieur le maire...** est un conseil qui fonctionne, qui débat et décide, dans la transparence, sur la base des propositions et avis des commissions qu'il a mises en place. Nous avons tous à y gagner.

Bonne lecture !

### Pourquoi ne pas rêver ?

La plupart des communes de France se plaignent que l'Etat a baissé ses dotations, et au vu des finances nationales, cela va continuer ou empirer.

La solution sera-t-elle d'augmenter les impôts locaux ?

Ou bien, est-ce du rêve de voir demain des communes voisines « mutualiser » certaines charges ?

Des exemples ?

- Souraïde dispose d'une piscine municipale, qui peut être un équipement coûteux pour une commune comme la nôtre. Espelette et Ainhoa n'en ont pas. Pourquoi ne pas proposer aux enfants de ces deux villages les mêmes tarifs qu'à ceux de Souraïde et répartir les pertes éventuelles sur les trois budgets municipaux ?
- Souraïde vient de se doter d'un nouveau tracteur. Avec deux employés concernés, combien de jours ce tracteur tournera-t-il par mois ? Il doit y en avoir aussi qui dorment à Espelette et Ainhoa.
- La commune d'Espelette a décidé de créer une maison médicale dans les locaux de l'ancien magasin Maisadour. Il y aurait déjà sept professionnels de santé d'Espelette intéressés et d'autres professionnels des communes avoisinantes se renseignent. N'aurait-il pas fallu y réfléchir ensemble en amont ?
- Une boulangerie à Souraïde ? La Supérette fait dépôt de pain et les boulangers de Larressore, de Saint-Pée et d'Espelette ont leur tournée de livraison à domicile dans notre village. Est-il raisonnable que la commune fasse un investissement très lourd pour transformer l'ancienne école publique en simple boulangerie ?

À l'avenir, d'autres opportunités de mutualisation entre voisins ne manqueront pas de se présenter. C'est cette politique de coopération que nous souhaitons, nous, privilégier.





● ● ● La modification du projet éducatif vers le bilinguisme à l'école publique de Souraïde ayant été actée depuis plusieurs mois, nous avons été surpris par le manque d'ambition lors de la création du poste d'ATSEM (personnel assistant en maternelle). En effet, le Conseil Municipal du 30 mars dernier nous apprend que la langue basque serait appréciée ! C'est heureux ! Il nous semblait naïvement qu'elle devrait être indispensable si l'on veut réellement une école bilingue. Rappelons que c'est aujourd'hui que nous devons réagir si nous voulons vraiment inverser la courbe et refuser le déclin de l'Euskara en Iparralde.

● ● ● A l'attention des associations : entendu lors des débats municipaux, les associations pourront demander la salle polyvalente au-delà des trois fois par an prévues, il n'y a qu'à demander !

● ● ● Consécration pour notre gazette puisque son contenu est maintenant commenté en Conseil Municipal. Au vu de son accueil, la population nous paraît plutôt favorable à un peu plus de débat municipal mais certains élus de la majorité n'y voient que « bassesse ». Chacun est libre de ses opinions... y compris nous ! Nous réaffirmons que notre but est d'encourager le débat dans notre village. Et si cela doit bousculer un peu les habitudes locales et titiller des susceptibilités endormies, tant mieux !

● ● ● « L'effet Ben Ali » semble s'estomper pour Michèle Alliot-Marie. Après avoir été réélue à la tête de la fédération 64 du parti Les Républicains, certains la voient déjà combattre lors de la primaire de la droite avant les présidentielles. Espérons que cela ne lui donne pas l'idée de revenir se présenter dans notre circonscription.

● ● ● Le contrat territorial signé avec le département finance en grande partie la construction de la nouvelle école publique. Il a été approuvé à l'unanimité lors du Conseil Municipal du 14/01/2016. Il ne s'agissait pourtant que du point numéro 12 d'un ordre du jour qui n'en comptait que 11. Interrogé sur cet ajout inattendu, le maire a indiqué que c'était un oubli ! Une étourderie bien rattrapée puisqu'il s'agit tout de même d'une subvention de 212.000 euros qui fait du bien.

● ● ● Nous ne connaissons que trop les contraintes et les difficultés que suppose la diffusion d'un bulletin d'information auprès de la population ; d'autant plus quand cela se fait de manière bénévole. Il nous semble cependant qu'avec les moyens dont dispose une mairie, la périodicité du bulletin municipal pourrait être améliorée. Sans même polémiquer sur son contenu actuel, nous sommes certains que le fait de sortir plus d'un numéro par an permettrait d'augmenter la qualité et l'intérêt de ce bulletin, ne serait-ce que par la fraîcheur des informations qui y sont traitées ...

## TAFTA, zer da?

**Un projet de traité ayant pour but la libéralisation totale des échanges commerciaux et des investissements entre l'Union européenne et les États-Unis.**

Projet dont les négociations en cours se font, depuis 2013, à huis clos, dans le plus grand secret ! Etonnant, non ?

Ce traité, s'il est ratifié, le sera sans la moindre consultation des parlements des états européens, ni des citoyens : déni de démocratie !!!

Il aura des conséquences désastreuses sur nos droits fondamentaux et nos conditions de vie !

- En démantelant les droits de douane restants, entre autres dans le secteur agricole, il permettra l'entrée massive de produits américains (OGM, hormones de croissance, antibiotiques, carcasses chlorées...) sur le sol européen. Il mettra à mal notre agriculture paysanne et nous interdira de favoriser les circuits courts ou les productions locales.
- En « harmonisant !!! » les normes européennes et américaines dans l'unique intérêt des multinationales, il conduira inévitablement à un nivellement par le bas des règles sociales, économiques, sanitaires, environnementales et culturelles.
- En mettant en place une Justice internationale parallèle, il permettra aux grands groupes de traiter entre eux. Ils pourront faire condamner lourdement états, collectivités ou communes au prétexte que leurs lois ou agissements constituent des entraves à leur fonctionnement.

Les intérêts des multinationales primeront ainsi sur notre souveraineté. Parce qu'il nous semble essentiel de décider nous-mêmes de notre sort, parce que nous souhaitons une économie basée sur la justice, l'équité, le respect des droits humains plutôt que sur la compétitivité exacerbée et la recherche systématique de toujours plus de profit, nous sommes, comme des millions d'européens, opposés à ce projet.

En Iparralde, des organisations et des particuliers bougent. Des élus aussi réagissent : 20 municipalités (Ezpeleta, Uztaritze, Itsasu, Bidarrai...) se sont déjà prononcées. Certaines communiquent en apposant des pancartes « Hors Tafta » à l'entrée des communes. Bientôt Zuraide ?